



PARTE HAR EZAZU! TRATAMENDU FARMAKOLOGIKOA SEGURUAGOA IZAN DADIN

Guztion esku dago atentzio sanitarioa hobetzea eta hutsegiteak saihestea; zuk ere lagundu dezakezu horiek eragozten.

Mesedez eskatzen dizugu arretaz irakur ditzazula gomendio hauek:

*Ospitalean **INGRESATZEAN:***

- ✓ Eraman ezazu **ZERRENDA** bat hartzen ari zaren medikamentu (inhalagailuak, kolirioak eta pomadak barne) gehigarri dietetiko, bitamina eta sendabelar **GUZTIEKIN**.
- ✓ **Eman iezaiozu zerrenda** zu artatzera etorri den profesional sanitarioari. Lagungarria izan daiteke medikamentuen kaxak ekarriko bazenitu.
- ✓ Tratamendu horiekin edo beste batzuekin **alergia edo arazorik** izan baduzu, jakinaraz iezaiozu.

*Ospitalean **ALTA jasotzean:***

- ✓ Joan aurretik, **aztertu ezazu aldaketaren bat** dagoen edo ez zure ohiko medikazioan:
 - Egiaztatu ezazu argi zehazten dela dosia, egunean zenbatetan eta zenbat denboran hartu behar duzun medikamentu bakoitza.
 - Egiaztatu ezazu zein diren medikamentu berriak, zein kendu dizuten eta aldatu ote dizuten hartzen ari zinenen dosia.
- ✓ Ziurtatu ezazu **argibideak eman dizkizutela berrikusketa egitera itzuli behar ote duzun** eta noiz.
- ✓ **Joan zaitetz familiako zure medikuarengana** zure tratamendua berrikusteko eta eguneratzeko.
- ✓ **Familiako zure medikuarengana** joaten zarenean edo **farmaziara** joan behar baduzu medikazioa hartzera, komeni da ospitaleko **alta-bxostena** eraman dezazula.

Ziurtatu ezazu TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIO IDATZI GUZTIA eskura daukazula ospitaletik atera aurretik.

Zalantzak edo kezkak badituzu, **GALDE EZAZU**. Azalpena eman, eta hala ere ulertu ez baduzu, galdetu berriz, zalantzarik gabe.

Eraman itzazu ohiko farmaziara aurrerantzean hartu behar ez dituzun medikamentuak, han behar bezala bota ditzaten.

Berrikusita: 2017ko abuztuan

IO-FARMACIA-01